

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Imanol Bilbao Eizagirre

Bilbo, 2009.01.28

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

1.- Zer da Bizkaiko Garraio Partzuergoa?

- **Sorrera:** abenduaren 30eko 44/1975 legea.
- **Estatutuak:** Ekainaren 18ko 1769/1976 Errege Dekretua.
- **Izaera juridikoa:** Toki Administrazioa.
- **Zein erakundek osatzen dute:** Eusko Jaurlaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, eta honako udal hauek: Bilbo, Barakaldo, Basauri, Getxo, Leioa, Portugalete, Santurtzi, Sestao, Erandio eta Etxebarri.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

2.- Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Eskumenak

- Bilbo Metropoli Trenbidearen azpiegitura-obrak finantzatu, gainegitura-obrak kontratatu eta finantzatzea.
- Metro Bilbao SA enpresa publikoaren sorrera eta titularitatea.
- Zenbait garraio agiri jaulki eta kudeatzea: Creditrans, Gizatrans, Hirukotrans.

ERABILERA PLANAK

ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

3.- Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Egitura Funtzionala

- **Herritarrekiko harremana mugatua** (garraio-agirien inguruko erreklamazioak, trenbide-zortasun guneetan obrak egiteko baimenak, etab.)
- **Harremanak, batez ere erakundeekin eta kontratistekin.**
- **Negoio juridikoen eduki ekonomiko garrantzitsua:** hornitzaileek eta kontratistek, oro har, euskara erabiltzerakoan ez lukete oztopo handirik izan behar.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

4.- Euskararen Egoera Bizkaiko Garraio Partzuergoan

- **Funtzionarioen euskararen ezagutza eta gaitasun-maila:**
 - %50ak gutxieneko ulermen-gaitasuna du.
 - %36ak maila baten behintzat, berba egiteko gaitasuna dauka.
 - %10 ondo moldatzen da idazten.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

5.- Helburu Orokorrak eta Normalizazio- neurriak

- **Baliabideak:** giza baliabideak, prestakuntza, itzulpen zerbitzua.
- **Funtzionario berrien euskararen ezagutza.**
- **Kanpo erabilera.**
- **Barne erabilera.**
- **Motibazioa-Komunikazioa.**
- **Corpusa-Kalitatea.**

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Giza Baliabideak

- Euskara koordinatzailea.
- Kanpo aholkularitza.
- Euskara Batzordea.
- Laguntza teknikoa.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Prestakuntza

- Euskalduntze eta alfabetatze ikastaroak.
- Taldekako trebatze- eta hobetze- ikastaroak.
- Erabilera taldeak.
- Banakako trebakuntza.
- Urrutiko trebakuntza.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Itzulpen Zerbitzua

- Kontratatutako enpresa bidez.
- Betebeharrak: itzulpenak egitea, euskaraz ekoiztutakoa zuzentzea eta estilo eta hizkuntza irizpideak finkatzen laguntze.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Funtzionario berrien euskararen ezagutza

- Lanpostu guztiek ez daukate derrigorrezko hizkuntza-eskakizunik, eta horrek atzera pausoak ekar ditzake etorkizunean. Hala ere, deialdi berrietan nabaritzen ari da hezkuntza elebidunaren eragin positiboa eta, ondorioz, derrigortasun datarik ez daukaten lanpostuetan ere euskaldunak sartzen ari dira.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Kanpo Erabilera

- **Herritarrekin:** harrera-zerbitzuetan bermatuta dago euskararen erabilera, zerbitzu zentraletan ez ordea. Idatzizko harremana elebidun beti.
- **Erakundeekin:** idatzizko harremana hizkuntza bitan, proiektuei dagokienean izan ezik. Zenbait kasutan elkarrekikotasunik ez dagoela salatu behar da.
- **Kontratistekin:** idatzizko harremana elebidun, elkarrekikotasunik ez dago. Egoera horri buelta eman beharra daukagu, enpresa handienetatik abiatuz.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRATIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Barne Erabilera

- **Ahozko komunikazioetan:** euskaraz dakitenek ere ez dute egiten, salbuespenak salbuespen; motibazioa bultzatzeko moduak bilatu behar dira.
- **Idatzizko komunikazioetan:** euskaldunak hasi dira testu elebidunak bidaltzen, zenbaitetan euskara hutsez ere bai, intranet erabilia. Hasitako bidetik jarraitu beharra dago, gaitasuna duten funtzionarioek horrela egin dezaten beti. Motibazio edota pizgarriak beharrezkoak dira.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Motibazioa-Komunikazioa

- **Euskararen aldeko jarrera bultzatu:** gaur egun ez dago euskararen aurkako jarrerarik, erdaldunen aldetik ere ez, baina gure hizkuntzaren normalizazioan inplikatzek ahalegin berezi eta etengabea eskatzen duenez, beharrezkoa da prozesuaren informazio osoa ematea uneoro, eta motibazioan sakontzea, pizgarri posibleak aztertuz.
- **Barne buletina sortu.**

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Corpusa (I)

- **Estilo liburua:** funtzionarioek idatzitako testuen estiloa eta hizkuntza irizpideak bateratu egin behar dira. Horretarako, lantalde bat osatuko da, egiten diren testuak aztertzeko.
- **Txantiloiak:** gehien erabiltzen diren agirien ereduak egin eta funtzionarioek eskuragarri izango dituzte (txostenak, ebazpenak, kontratuak eta abar).
- **Kudeatzeko sistema:** guzti hau euskaraplanak.net-en bidez kudeatuko da.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

Corpusa (II)

- **Ikastaroak:** sistemaren abantailaz jabetzeko eta erabiltzen ikasteko, prestakuntza emango zaie langileei.
- **Hiztegia:** funtzionario guztiek terminologia berdina erabili behar dute, batez ere kontu handia jarri behar da garraio arloko eta, bereziki, trenari lotutako hitzekin. Arlo horietan lan egiten duten gainontzeko administrazio publikoekin koordinazioa ezinbestekoa da.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

6.- Euskara Planaren jarraipena eta ebaluazioa

- Plangintzaldiko urte bakoitzaren amaieran egindako lanaren memoria egingo da. Ebaluazioa egiteko “euskaraplanak” aplikazioa erabiliko da, HINAT hizkuntza neurgailuaz baliatuz. Baloratuko dira: helburuak, neurriak, baliabideak, hizkuntza irizpideak eta abar. Horrez gain, langile bakoitzaren helburuen betetze maila agertuko dira, EME sistemak ezarritakoaz beste alderdi batzuk neurtuko dira: baliabideak, ezagutza, motibazio-komunikazioa eta Corpusha-Kalitatea.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

7.- Ondorioa: Erabilera Planaren balorazio kritikoa (I)

- Euskara Plana onartzea, berez aurrerapausoa da.
- Bide bietan ekin: euskalduntze/alfabetatzea eta erabilera, azken horri lehentasuna emanaz. Egia da gaztelaniaren aldeko inertzia dagoela, baina hori ez da arazo bakarra.
- Erabilera areagotzeko oztopoak:
 - Material eza: datu baseak, doktrina juridikoa, aurrekariak, proiektuak e.a.
 - Lan bikoitza egin beharra.
 - Lankide eta goi-kargu erdaldunak.
 - 10/1982 legea zaharkituta geratu da.

ERABILERA PLANAK ADMINISTRAZIO PUBLIKOAN

Bizkaiko Garraio Partzuergoaren Erabilera Plana

7.- Ondorioa: Erabilera Planaren balorazio kritikoa (II)

Herri administrazioetan euskaraz jarduteak ez du militantzia kontu bat izan behar, eta horretarako neurriak hartu behar dira (lege-aldaketa euskara hutsean jardun ahal izateko, kargu politikoek gutxienez euskara ulertzeko konpromisoa hartzea, pizgarri ekonomikoak e.a.)